


Nadin Hussein Hernandez

A maila • 2 saria

Nadin Hussein Hernandez, Tolosakoa eta Beasainen Batxilergo artistikoa egiten ari naiz. Naturaltasuna, musika, parranda eta gauza anormal goxoen zalea, purpurina eta lagun xelebreen fan-a. Esnea mikrouhinean berotu ordez, zartagian berotuta zaporetsuagoa denaren tesia defendatzen dut, metalezko kutxarila bertan sartu nuenetik.



SIESTA GARAIA

Loak besaulkian hartu zaitu, albistegi manipulatuari betazalekin desafio eginaz. Zurrunga egongelan gailentzen ari den bitartean, berri emailearen ahotsa bare estali duzu zeure loaz. Nekatuta dirudizu, motots beltz luze-luzeak titi puntak dizkizu laztantzen, erreka ura menditik barrena jaisten den antzera, sorbaldetatik behera. Oinetan, etxera sartu orduko jantzen dituzun txapinak erdi erantzita daramatzazu, hanketako behatzek garrasika eskatu baitizute atseden eta zuk, tentuz, egin diezu kasu, bada eta denbora nire alabaren txapinak ordezkatu zenituenetik, harekin batera, zaintza lana.

Egunero etorri ohi zen alaba Kattalin ohetik jaiki eta azukre gabeko kafesne katilukadarekin "egunon Ama" esanaz; goizeroko pilulak zenbatu eta ea denak irensten ote nituen baieztatu arte, hantxe egoten zen eserita, zu zauden toki berean, niri begira, nekearen gainbehera disimulatu nahian, eta konturatzen nintzen ez zuela zertan nire adin gorakadak dakarkidan osasun beherakadaren dragongan honen gidari lana bere gain hartu behar, ezin zuela egunaren hogeia eta bostgarren ordua ere erizain, psikologa eta alaba adeitsu gisara antzeztu, ez denborak, ez indarrak, ez baitzion uzten.

Kattalini esnea sutan ahaztu zitzaion goiz hartan, otsaileko otsoek ulu egiteari utzi zioten goiz berean, ene logelatik ihes batean irten eta malkoak begi-zuloa estaltzen ziotela bueltatu zen niregana, kafesne erreka trapu batez helduz eta beste eskuan pilulak zekartzan plastiko hutsa sostengatuaz, "Ama, zer egin duzu pilulekin?".

Txapin arrosen barruan ezkutatzeko nituen berak etxetik alde egin orduko; kostata, baina kamisoi eta guzti, maiz zimurtuen artean gorputza ezkerretatik irauli, eta laurogeita lau urteko hankak alfonbran pausatzean, birrikak haizez puztu eta zutik jartzen nuen zain moreez beteriko ene enborra, oheko barandailari gogor helduta. Korridore iluna oinaze txikitan zeharkatu eta egongelako lanpara erdi funditua pizten nuen; atearen atzealdeko apalean egoten ziren txapinak, esku zimurtuez hartu eta banan-banan sartzen nituen pilulak, diabetesaren aurkakoak, bitaminadunak, hezurretarakoak, gibela garbitzekoak... pilulak jateak, bizi epe luzeagoa zekarkidan, errutina konstante eta neurtua, menpekotasuna, Kattalinek nirekiko zuen berbera.

Txapinak apalean gorde eta berriro itzultzen nintzen goxotasunez estaltzen ez ninduten izara hotzetara, ordulariaren orratzek tik-tak dantzatzeko zuten doinuak, heriotza erregutuz. Laurogei eta lau urteetan nahiko lan egina naiz ni, ez dut beste baten lan izan nahi, are gutxiago Kattalinena.

Argi aipatu zidan, “zahar etxea edo Aurora, ama, bietako bat”; hurrengo asteko egunon urduriak zuk eman zenizkidan Aurora, “buenos días” batez.

Gogoan dut txapinak aurkitu zenituen unea, irribarre bihurriaz begiratu eta “¿desde cuándo las escondes aquí?” bota zenidan, erantzungo ez nizula bazenekien arren.

Zaborrontzian ustu eta “Listo, solucionado”, zuk zeuk jantzi zenituen txapinak, ziur naiz esker onez dastatu zituztela zure azkazal pintatu berriak hilabetez ezkutuan mantendu izan zizkidaten pilulekin alderatuz.

Begiak itxita jarraitzen duzu parean eserita, lo, eta behin eta berriz ari natzaizu begira, zure silueta memorizatu nahian, gaur hiltzen banaiz, azken zaindaria zu zaitudala ahaztu ez dezadan.

Norekin ari ote zara ametsetan Aurora? Ametsak interpretatzen ez dakit baina bada zerbait nostalgiak umeldutako irudiak darabilzkizula bueltaka esaten didana, faltan duzun jaki, usai, senide, Nikaraguako txoko edo besarkadaren bat.

Lau urte igaro dira nire etxea gu bion etxe izendatu genuenetik, igandetako pilota partidu eta telenobelak partekatzeaz gain, otordu guztiak elkarrekin murtxikatzen ditugunetik, zure zaintza lana purrustaka eta diruz itzultzen dizudanetik.

Zenbatetan arindu dizkidazun ostegunetako babarrunak Nikaraguako pasarteez hizketan, badakit ez zaizula asko gustatzen iraganaz mintzatzea, Kattalinen aurrean behintzat, galderak nola saihesten dituzun aspaldi ohartu bainintzen, baina satisfazio umilaz betetzen nauzu iragan kontuez hitz egitean, biok bakarrik gauden une horietan hasten baitzara Nikaraguako senideez edo umetan ahizpen artean amonari egiten zenizkioketen bihurrikeriak xehetasunez kontatzen, edo nola behin, anai zaharrenari panpina ostu eta ile guztia nola zenion moztu, burua haren ipurdia baino leunago utzi zenuela lau haizetara oihukatuz, irri mutu batez erantzuten dizut nik, zuk kantu-kontari jarraitzen duzun bitartean, gu biok bakarrik gauden une horietan, ia gehienetan.

Konpainia eta denbora dirutan erosten dizugu Kattalinekin eta nik, era batera esanda, bizitza ari gatzaizkizu erosten dirutan, eta pentsatzen dut zer egingo ote duzun zuk niri bizi denbora amaitzen zaidanean, ez dut nirearekin batera zurea bukatzerik nahi.

Aurora, badakizu askotan zure ama nolakoa izango ote den galdetzen diodala kontzientziari? Gogorra egingo zitzaizuen hogeitau urte bete berri zenituela hona etorri beharra, familia han izanda, hemen irabazitako diru kopuru bat hara bidaliko zenuela zin eginda, zer eta hona etorri, Kattalinen ama zaintzera zuk zurea han utzi eta gero. Familiak hizketan hasten zarenean, lotsa moduko olatu batek egin ohi dit talka bihotz ertzean, nik hemen nirea edukita zuk zaindu behar honek... zure amarekiko erreparoa sortzen dit.

Bazkalostean, platerak armairuan kolokatzen zenbiltzan bitartean, beti emakumeak zaretela besteen gurasoak zaintzera etortzen zaretanak kontatu didazu, eta nik ohitura dudanez, mutu erantzun dizut, ez dakit zergatik, baina urteak daramatzat ia hitzik egin gabe, eta isiltasunak badaki arrazoi duzula.

Nahiz eta ez dizudan behin ere hitz egiten, halako batean, heriotzak beso artera gonbidatuko nauen eguna baino lehen, ahaleginduko naiz “eskerrik asko” bat oparitzen letra bakoitza argi ahoskatuz.

Pixkanaka lotarako postura aldatuz zoaz, kateme baten soinuaz besoak luzatuz eta burua burko gainera balantzatuz, bularrek ere mantso jarraitu dute gorputzaren norabidea alde batera erabat etzanda geratu arte, belauna tolestu eta euripean busti nahi ez bazenu bezala

babestu zara artilezko mantapean. Halako batean, hankak zilborrera igotzean, txapin erdi erantzia erabat jauzi zaizu alfonbra gainera, iturginari estolda kasko gainera eroriko balitzaio modura.

Txapinari begira pasa ditut azken minutuak, oinak sartzeko duen zuloa denborarekin nork bete duen oroitzuz, lehenik Kattalineke, ondoren pilulek eta gero zuk. Telebista itzali dut, zure loaz ni ere lokar nadin, badakit pilota partidua hastean, sakarinadun kafesne eta okindegiko bizkotxo zatiaz “ Madre, hoy va a ganar Artola” esanaz esnatuko nauzula.